

EIDE



iF DESIGN AWARD 2027-RAKO EIDE ETA DIGA-RI LOTUTAKO PROFESIONALEN ETA ENPRESEN PROIEKTUEN HAUTAKETA

EIDE - EUSKAL DISEINUAREN ELKARTEA
/ ASOCIACIÓN DEL DISEÑO VASCO

2026/07/22

EIDE

T. +34 944 249 053
info@eidedesign.eus
eidedesign.eus

Plaza del Ensanche, 11
Edificio Ensanche
48009 Bilbao

CIF: G48202535

GURE DISEINU ONENAK.....	2
NORK HAR DEZAKE PARTE.....	3
KATEGORIAK.....	3
PROIEKTUEN BALDINTZAK.....	4
EPAIMAHAIA.....	4
BALORAZIO SISTEMA.....	4
EGUTEGIA.....	5
NOLA AURKEZTU ZURE PROIEKTUA.....	5
iF DESIGN AWARD.....	6
ONURAK.....	6
DATAK ETA ORDAINKETAK.....	8
ZALANTZEN ARGIKETA.....	9

GURE DISEINU ONENAK

IF DESIGNekin 2024an sinatutako lankidetzaz hitzarmenetik sortutako ekimen honen lehenengo bi edizio arrakastatsuen ondoren, aurten berriro ere deialdia egiten dugu **EIDEko profesionalak, enpresek eta heziketa-zentroek egindako diseinu proiektu bikainak hautatzeko**. Proiektu horiek automatikoki eta doan **iF DESIGN AWARD 2027ko finalistak izango dira**.

Elkartek, duela ia 40 urte sortu zenetik, izan duen helburu nagusietako bat euskal diseinua, bertako profesionalak eta enpresak sustatzea izan da. Helburu hori 2024ko maiatzean indartu zen, [iF DESIGNekin lankidetzaz hitzarmena sinatzean](#). Hitzarmen horrek, beste ekintza estrategiko batzuen artean, EIDEren lurralde-eremuko proiektu nabarmenak hautatzea jasotzen zuen, [iF DESIGN AWARD](#) sariaren finalistatzat hartzeko, aurrez hautaketa online (iF Online Preselection) automatikoki gaindituz.

Proiektuek sari horien prozesuarekin jarraitu ahal izango dute, zuzenean azken epaimahaiaren fasera (iF Final Jury) pasatuz eta dagokion kuota bere gain hartuz. Aukera bikaina da nazioarteko aintzatespena lortzeko, hasierako etapetan ziurgabetasuna eta kostua murriztuz.



Sari ospetsu hauen [2026ko edizioan](#), Euskadiko eta Nafarroako 21 proiekturen bikaintasuna aitortu zen, eta haietatik elkarteko 14 proiektu profesional eta diseinu-enpresa ziren: Niessen (Gold Award eraman zuena), Nacar, bigD, Orbea, Salto, dot eta Taqta. Aurreko edizioko irabazleekin batera, azken bi urteotan gure lurraldeko 30 proiektu saritu egin dira, euskal diseinuaren kalitatea nazioartean babesten eta ikusarazten duten zenbakiak.

Baina badakigu hemen askoz gehiagorako potentziala dagoela, eta, beraz, berriro gonbidatzen zaitugu azken bi urteetako zure proiekturik onenak berreskuratzera eta deialdi honetara aurkezttera, gorenera iristeko. Zurekin kontaktatu dugul!

NORK HAR DEZAKE PARTE

EIDEko kide diren profesionalak, estudioek, enpresek eta heziketa-zentroek, eta, beraz, diseinuan profesionalki aritzen direnek edo berrikuntza eta lehiakortasunerako tresna estrategiko gisa integratu dutenek.

Deialdi honetara DIGAko, Arabako Diseinatzaile Grafikoen Elkarteko, bazkideek ere aurkeztu ahal izango dira, bi elkarten artean 2022an sinatutako lankidetzeta-hitzarmenari esker.



KATEGORIAK

Proiektuak aurkez daitezkeen kategoriak EIDEk bere profesional eta enpresa elkartuak sailkatzeko definitutakoekin bat datoz:

- Diseinu industriala / produktua
- Diseinu grafikoa / digitala
- Espazioen diseinua
- Diseinu estrategikoa / zerbitzuak

Kategoria orokor hauek iF DESIGN AWARDS sarietan definitutakoekin bateragarritasuna erraztu nahi dute, [9 disziplina eta 82 kategoriatan banatuta](#).

→ Proiektua GURE DISEINU ONENAK hautaketan sartzen bada, iF DESIGN plataforman zuzenean aurkeztu ahal izango da finalista gisa, non zehaztu beharko du zer kategoriatan aurkezten den.

PROIEKTUEN BALDINTZAK

Hautaketaren parte diren proiektu guztiek publikoki aurkeztu edo deialditik bi urteko epean (2024ko uztailetik 2026eko irailera bitartean) eginak izan beharko dute. 2026an aurkeztuko edo merkaturatuko diren proiektuak ere hautatu ahal izango dira.

→ Proiektu esperimental eta kontzeptualak, oraindik argitaratu ez diren enkarguzko lanak, ikerketa-estudio eta proiektuak, eta 2027 baino lehen ezarpena aurreikusi edo espero ez den diseinu-kontzeptu berritzaileak "KONTZEPTUA" gisa aurkeztu ahal izango dira, iF DESIGN AWARD 2027an aurreikusitako kategoria.

Bikaintasuna bilatzea eta lehen hautaketa honen bideragarritasuna errazteko, hautagaitza **bakoitzak gehienez bi proiektu inskribatu ahal izango ditu kategoria bakoitzeko.**

→ Salbuespenak egon daitezke: proiektuak iF DESIGNeko kategoria desberdinetan egotea baina gure sailkapen orokorragoan kategoria berean geratzea. Zalantzarik izanez gero, kontsultatu iezaguzu proyectos@eidedesign.eus helbidean.


EPAIMAHAIA

Epaimahaia elkartearekin zerikusirik ez duten nazio eta nazioarteko ospe handiko profesionalak osatuko dute, hautaketan kalitatea eta neutraltasuna bermatuz.

BALORAZIO SISTEMA

Epaimahaiak hautagaitzak iF DESIGN AWARD sarietan erabiltzen diren bost irizpideen arabera ebaluatuko ditu, diseinuan aditua den nazioarteko talde batek garatuak:

- **Idea.** Helburua, garrantzia, egokia bere helbururako
- **Forma.** Emozio-erakargarritasuna, estetika, exekuzio
- **Funtzioa.** Erabilgarritasuna, eraginkortasuna, erabiltzailearentzako onura
- **Bereizketa.** Berrikuntza, marka-bereizketa
- **Jasangarritasuna.** Ekologikoa, ekonomikoa, soziala



Epaimahaiak edozein kategoria hutsik utzi ahal izango du, kalitatea edo parte-hartzea nahikoa ez dela uste badu.

EGUTEGIA

Proiektuak hautatzeko prozesuak egutegi hau jarraituko du:

- **Deialdiaren irekiera:** 2026eko ekainaren 22a
- **Proiektuak aurkezteko epea:** 2026eko irailaren 25ra arte
- **GURE DISEINU ONENAK proiektuen hautaketa:** 2026eko urriaren 5tik 6ra

iF DESIGN AWARD 2027 sarietara finalista gisa aurkeztu nahi duten hautatutako proiektuek [my iF plataforman](#) erregistratu eta dagokion dokumentazioa 2026eko **azaroaren 4a baino lehen igo beharko dute**

NOLA AURKEZTU ZURE PROIEKTUA

Bidali 2025eko irailaren 26a baino lehen mezu elektronikoko bat proyectos@eidedesign.eus helbidera , **proiektu bakoitzeko pdf bat barne, eduki hauekin (ingelesez):**

- Proiektuaren izena eta deskribapena - gehienez 50 karaktere
- Aurkezten den kategoria
- Merkaturatze / argitaratze data
- Salmenta prezioa publikoari - aukerakoa
- 4-7 argazki edo irudi
- Bideoaren esteka (baldin badago) - *gehienez 2 minutu, ingelesez edo azpiztituluekin*
- Webgunearen esteka (baldin badago) - *ingelesezko bertsioa*
- Diseinuaren justifikazioa - *gehienez 650 karaktere*
- Ideiaren justifikazioa - *gehienez 650 karaktere*
- Formaren justifikazioa - *gehienez 650 karaktere*
- Bereizketaren justifikazioa - *gehienez 650 karaktere*
- Jasangarritasunaren justifikazioa - *gehienez 650 karaktere*
- Kredituak: Estudioa / Diseinatzaileak eta Bezeroa / Ekoizlea

Mezu elektronikokoaren gorputzean aurkezten dituzun proiektuak eta kategoriak zehaztu beharko dituzu, dokumentu bakoitza zein proiekturi dagokion argi eta garbi adieraziz.

KOSTUAK → Hautaketa honetara proiektu bat aurkezteak ez du inolako kosturik, baina hautatuak izan eta iF DESIGN AWARD prozesuarekin jarraitu nahi dutenek [dagokion tasak](#) bere gain hartu beharko dituzte.

iF DESIGN AWARD

iF DESIGN AWARD mundu mailako nazioarteko sari ospetsuenetako bat da, eta iaz 72 herrialdetako 11.000 hautagaitza inguru jaso zituen. iF Design Foundation irabazi-asmorik gabeko erakundearen jabetzakoa da saria, eta diseinuaren mundu mailako eragina nabarmentzen du, baita bere epaimahai profesionalaren inpartzialtasuna bermatzen ere, hautaketa-irizpide zorrotzak mantenduz.

iF DESIGN AWARD saria irabazteak diseinu-aditu ospetsuen bi faseko hautaketa zorrotza gainditzea esan nahi du. Urtero parte-hartzaile kopurua handitzen ari denez, kalitate handienekoak bakarrik hautatuko dira.

ONURAK



iF Winner logotipoa

Produktuaren bitzitza osoan doan erabiltzeko



iF Winner Package

- iF Award metalezko plaka.
- Paperezko 2 ziurtagiri.
- Sorpresa txiki bat.




Adituen iritziak

iF Jury Feedback chart, zure emaitzak besteekin konparatzeko.



iF Design Award Night

Berlingo iF sari-banaketa ekitaldi glamurusora gonbidapena..



iF Design Trend Conference

Diseinuaren joera global eta diziplinartekoak ezagutzeko konferentzia honetara joateko gonbidapena.





iF Design Trend Report

Ale bat doan, diseinuaren mundu mailako panoramaren ikuspegi osoa eta alderdi anitzekoa.


onurez gain, irabazleak publizitate-erreportajeen eta iragarkien bidez sustatuko dira, ez bakarrik iFren kanaletakoak, baita diseinu, arkitektura eta barne-diseinuaren arloetako komunikabide garrantzitsuetan ere. Nazioartean aktibo den agentzia batekin lankidetzan egindako jarraipen profesionalak kalitate-maila altua eta beharrezko irismena bermatzen ditu.

iF DESIGN komunitatea


Profesionalak, estudioak eta proiektuak ifdesign.com webgunean agertuko dira mugagabe, profil horiek eta haien edukiak denboran zehar eguneratzeko aukera izanik. Saritutako guztiek profil pertsonalizagarri bat jasotzen dute, sariak irabazi dituzten proiektuez gain, erreferentziatzko proiektuak aurkezteko aproposa den portfolio-galeria batekin, automatikoki erakusten direnak.



Komunikaziorako materiala
Pentsan, sare sozialetan eta marketinean autopromoziorako.



Metaverse experience
Saritutako proiektuak iF Metaverse berriaren parte izango dira



iF Design Ranking
Azken bost urteetan zein enpresa eta sortzaile izan diren arrakastatsuenak erakusten duen rankinga.

DATAK ETA ORDAINKETAK

EIDEk hautatutako eta iF DESIGN AWARD 2027 prozesuarekin jarraitu nahi duten proiektuek data hauek kontuan hartu beharko dituzte:

- **Proiektuak plataformara igotzeko epea:** 2026eko azaroaren 4a
- **iF Final Jury Hanburgon:** 2026ko otsailaren 16tik 18ra
- **iF Design Award Night 2026 Berlinen:** 2027ko apirilaren 26a

Gainera, dagokion faseetako inskripzio-prezioak kontuan hartu beharko dituzte:

- ~~Inskripzio orokorra:~~ 300€ eta 500€ artean inskripzio bakoitzeko (aurrez EIDEk hautatua izateagatik aurrezpena)
- **iF Final Jury:** 300€ inskripzio bakoitzeko*
- **Produktu / packaging diseinuaren irabazleak:** 3.300€ inskripzio bakoitzeko*
- **Beste edozein diziplinatako irabazleak:** 2.900€ inskripzio bakoitzeko*

(*) Ohikoena da inskripzio 1 = proiektu 1, bilduma edo erlazionatutako produktu / proiektu sorta bat aurkeztu daitekeen kasuetan izan ezik. Adibidez: *osagarri-serie bat edo akabera desberdineko bertsioak diseinatu badituzu, inskripzio bakar gisa aurkeztu ahal izango lirateke, bakoitza bereizita aurkeztu beharrean, eta horrela dagozkien tasak aurreztuko zenituzke.*

AHOLKUA

→ Hitz egin zure bezeroekin sari honen onurak eta egin zenizkien proiektuak nazioartean sustatzeko aukera azaltzeko. Haiek zuzenean aurkeztu ahal izango lukete kostuak bere gain hartuz edo zuekin partekatuz. Win-win egoera da.

→ Zure bezeroentzako argudioak osatzeko, alde batetik, iF DESIGN saria irabazi ezean epaimahaiaren eskutik jasotzen den feedback zehatza balioestea gomendatzen dizugu, hobekuntzarako gakoekin. Bestalde, nabarmendu Berlinen egingo den sari-banaketa ekitaldia, irabazle bakoitzeko 4 pertsona joan ahal izango direna, eta aukera paregabea da sare profesionala egiteko eta nazioarteko proiektuorako.

ZALANTZEN ARGIKETA

2025ean, [webinar informatibo](#) bat eskaini genuen Jimmy D'Heer-ekin, España iF DESIGN bulegoko arduradunarekin, sarien inguruko zalantzak argitzeko. Webinar honen aurretik beste bi egin ziren 2024an ([1. saioa](#) eta [2. saioa](#)). Aurtengo saioak egun hauetan izango dira:

→ 2026ko uztailaren 3an, 11:30etan

→ 2026ko irailaren 4an, 11:30etan

Izena ematea eta zalantzak bidaltzea: proyectos@eidedesign.eus